



## KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

Ogasun Batzordeak 2017 azaroaren 29an egindako diktameneko kopuruen arabera, 2018 ekitaldiko **AURREKONTU OROKORRA**ren proiektuak **35.649.758,18** euroko zenbatekoa du. Proiektu horretan sartu ditugu, UDALAren aurrekontua, **32.247.058,18** eurokoa eta ITURBIDE EGOITZA Erakunde Autonomoaren aurrekontua, **3.442.624,28** eurokoa.

**Udalaren aurrekontua nahiz Erakunde Autonomoen aurrekontuak aurrekontuei buruz indarrean dauden legezko xedapenen arabera egin dira.** Aurrekontuko kopuruak kalkulatzeko erabilitako irizpideei buruz, beharrezkoa da ondorengoa adieraztea:

**Diru-sarreraren aurreikuspenak kalkulatzeko, aurrekontuaren I, II, III eta V. kapituluetan, 2017 urtean likidatutako eskubideetatik abiatu gara,** itxiera aurrerapenaren datuen arabera, eta **kontuan izanik ere Ordenantza Fiskaletan 2018rako sartutako tarifa aldaketak,** Udalbatzarrak 2017ko urriaren 3an hartutako akordioaren arabera (orokorrean 2017koekiko igoera %1,5 onartu da, Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, Eraikuntzaren gaineko zerga, Zabor tasa, Ongizate esparruko zerbitzuen tasak eta Ondasun higiezinaren gaineko- zoru industrialerako eta landa izaerako zorurako- Zergan izan ezik, hauek ez dira igotzen).

**IV, VI, VII eta VIII. kapituluetarako,** oinarritzat hartu dugu orain dagoen **informazioa,** bai eta beste **erakunde batzuek hartutako diru-laguntza konpromisoak** hartu dira kontuan (Udal Finantzaketako Foru Fondoaren parte-hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera) eta beste kasu baten (Kulturola proiektua) erabaki gabe badago ere, egindako eskariari buruko laguntzaren balioespena sartu da aurrekontuetan. Dena den ere, hala badagokio, ekitaldian izan daitezkeen balizko desbideratze negatiboak (batez ere VI.Kapituluko - Inbertsio Errealak Inorentzea (Hirigintza Kargak) eta VII. Kapituluko – Kapital Transferentziak, insekuritate maila handien duten sarrerak horiek baitira) kontrolatu beharko ditugu aurrekontuaren exekuzioa berraztertzeko testuinguruan eta, desbideratzearen tamainaren arabera, eta horiek negatiboak baldin badira, horrek erabakiak hartzera behartuko du, aurrekontua orekatzeko, bietako bat gauzatu, edo gastuak murriztu edo diru-sarreraren igoera osagarri bat bilatu.

**Gastuen atalean, adierazi daiteke nahikoa dela daukagun aurrekontu kopurua zerbitzuak normal funtzionatzetik datozen eta eskatu daitezkeen obligazioak betetzeari erantzuteko.** Honi dagokionez, kontuan izanik Zerbitzu amankomunatuetatik datozen konpromiso ekonomikoen tamaina eta kontuan izanik ere une honetan Mankomunitatearen aurrekontua oso hasierako fasean aurkitzen dela (zenbait irizpide oraindik eztabaidatu eta finkatu gabe daude), 2018ko Udal aurrekontu proiektuan 2017ko antzeko kopuruak (goitik borobilduta) jasotzea erabaki da. Mankomunitateko aurrekontuak onartzen direnean, hortik udal aurreikuspenak motz gelditu direla ondorioztatzen bada, aipatu kontusailak diru dotazio osagarriekin zuzendu beharko direla, eta hori, beharrezkoa balitz, 2017 ekitaldiko itxieratik lortuko diren (seguritate maila handiarekin) soberakinaren erabileraren bitartez egin daiteke. Dena den, nire iritzian, kreditu globala eta aurrekontua betetzeko arauak (eta horiek ematen dituzten malgutasunak) dira udal aurrekontuetako beste tresnak ahalbidetzen dutenak, modu nahiko errazean, ekitaldian sortu daitezkeen gastu desbideratzei 2018ko aurrekontuak egokitzeko.

**Pertsonal edo langileen kapituluko gastuei dagokienez,** Estatutik azken urte hauetan ezarritako mugak eta zehaztasunak finkatu gabe egonik (atzerapenez eztabaidatzen ari dira 2018rako Estatuko aurrekontuak), Udal aurrekonturako dotazioak kalkulatu ditugu, termino homogeneoetan, **2017ko** bukaeran indarrean zeuden lanpostu eta ordainketei buruz **igoerarik gabe, nahiz eta fondo izaeraz %1,5eko erreserba bat sortu, ekitaldian zehar onartu daitezkeen ordainsarien errebisioak finantzatzeko.**

Gainerako diru-sarrerekin ezin estali daitezkeen gastuak finantzatzeko, **Udalaren aurrekontuan jasota**



**dator mailegu bat eskatzea, 347.891,18 eurokoa, eta ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoaren kasurako, beharrezkoa da udalaren ekarpena, 2018ko ekitaldian aurreikusten den defizita estaltzeko, 19.924,28 eurokoa.** Diru-sarrera horien bidez aurrekontu biak, UDALARENA eta ITURBIDE EGOITZARENA berdintzea lortu dugu.

2018 ekitaldirako jasota dagoen aurrekontuetako zorpetze berriko zenbatekoari dagokionez, 302.891,18 eurokoa, esan behar dugu, aurreikusitako mailegu berria sinatuko balitz ere (seguruenik egingo ez duguna, izan ere, estimatu dugu ez dela behar izango mailegu berririk, 2017ko ekitaldiko itxieran soberakinak sortzea espero baitugu), legez finkatutako 2018rako helburuak bete egingo direla, hots, **aurrekontua egonkortzekoa, zor publikoarena eta gastu arauarena** Aurrekontua Egonkortzeari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan nahiz garapeneko hurrengo legezko araudian ezarritakoak, besteak beste, 2013ko apirilaren 8ko 172013 Foru araua, Gipuzkoako Toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretza eskumena garatzen duena, eta 2017ko azaroaren 7ko dataz onartutako Gipuzkoako Diputazioaren Instrukzioak, azaroaren 16ko GAO-n argitaratuta, Gipuzkoako Udalei aplikagarria dena, eta 2018rako helburu hauek ezartzen dituen:

- Toki Erakundeei aurrekontu **egonkortasuneko helburuak - Zero defizita**
- **Zor publikoa** - 2018/12/31n 2018ko diru-sarrera arruntei buruz **%75ko muga**
- **Gastuaren araua** – 2017ko gastuari buruz **%2,4 gehienezko hazkundera** ezin da gainditu.

- Azken ekitaldiei buruzko aldaketa gisa, hiru helburu horiek aurrekontuaren onespenean, aldaketan eta itxieran, Kontuhartzaitzako txostenaren bidez, egiaztatu behar badira ere, 2018rako araudiak xedatzen du **plan ekonomiko-finantzieroaren beharra** (eta hartu beharreko neurriak lortzeko urtebeteko epean berriro helburuak betetzeko egoerara bueltatzea) edo obligazioa soilik **2018ko aurrekontua likidatzean neurtu eta gauzatu behar dela.**

Egiaztatu beharreko hiru helburu hauek bete direla egiaztatzeko txosten honekin batera doan agiri osagarrian ikus daiteke.

Gaurko egunez, konpromiso kredituak ditugu, 2018ko ekitaldiaren eta hurrengo ekitaldien kontura onartutakoak, 5.262.122,47€an, handienak, "Juan arzamendi Musika eskola" proiektuaren kontratazio espedientetik ondorioztatutako kreditu erreserbetatik eratorriak (une honetan oraindik esleitu gabe), 4.717.705,76€, eta "Polo de Innovación Garai S.Coop." entitatearen kapital ekarpenari buruz Udaltzarrak 2010eko urriaren 7an eta 2013ko abenduaren 17an hartutako akordioetatik datozenak, hura ordainduko (202.578,53 euro) da baldin eta Eraikuntzen gaineko Zergarengatik edo Hiri OHZrengatik diru-sarrerak sortzen badira, berrikuntza gune horretan. Beste konpromisoak, kopuru txikiagoak suposatzen dutenak, Makatzenako Igogailu berriaren kontratazio espedientetik (104.454,29 euro), Biteri-Garibai esparrua hiritartze proiektutik (Cnes. Murias-118.918,33 euro) eta Zalduspeko Kalte-ordaina ordaintzetik (90.000 euro, ordainketa 2019ra atzeratua) datozenak dira. Halaber, aurrekontuak betetzeko arauak jasota dute 2018an konpromiso berriak hartzeko aukera, inbertsio proiektu jakin batzuetarako, gero ekitaldien kontura, hori guztia baldintza honekin, Gipuzkoako toki erakundeen Aurrekontuen gaineko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua eskatzen dituen baldintzak betetzea. Araudi horrek xedatzen du, beste baldintza batzuen artean, etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin dela izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten baliabideen %25 baina handiagoak. Laburbilduz, gaur arte onartutako konpromiso kredituen zenbatekoa ikusirik eta kontuan izanik horietatik zati esanguratsu bat (%30a) 2018ko aurrekontuetan eragina daukatela eta, berez, 2018ko aurrekontuaren onespenearekin bere finantzazioa bermatuta gelditzen dela, eta 2018an konpromiso berrietarako jasotako kasuen ezaugarriak kontuan izanik, **esan genezake ez dugula espero arazoak egotea konpromiso kredituen finantzaketari aurre egiteko Udalak duen gaitasun ekonomikoari buruz.**



Aurreko paragrafoan esandakoaren kaltetan gabe, kontziente izan behar gara likidatutako azken ekitaldikiko baliabide arruntak 30.993.321,02 euro izan zirela eta 2017ko itxieran ez dugula aurreikusten aurreko ekitaldiarekiko aldaketa esanguratsurik, eta, ondorioz, kopuru horien arabera, etorkizuneko ekitaldien konturako gehienezko muga, gutxi gora behera, 7.750.000 eurotan kokatzen dela. Beraz, une honetan 2019rako hartutako konpromisoak baldin badira 3.694.000 euro (3.490.000 euro Musika eskola proiektutik datoz eta horiek, ziur aski, behin obrak esleitu eta gero, murriztuko direla), garbi dago beste proiektu handien kontratazio espedienteak martxan jartzen direnean (Kulturola, gehien bat), etorkizuneko ekitaldien kontura konpromisoak hartzeko margena dezente murriztuko dela. Egoera berri honetaz, aurreko aurrekontuetan eman ez dena, ezagutu arazi nahi da txosten honetan. Honekin ez dut muga legalak betetzeko ezintasunak ondorioztatzen direnik esan nahi, alderantziz, nire ustez, oraindik nahiko margen erosoak izango dugula **konpromiso berriak hartzeko**. Baina hori bai, ukalezina dela **2019 ekitaldiaren konturako aurreko aurrekontuetan izan dugun egoerarekin alderatuta, aipatu margenak modu nabarian murriztuak izango direla**.

Azkenik, adierazi behar dugu, Aurrekontua onartzeko, **Udalbatzarraren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa behar dela**. Aurrekontua onartzeko hasierako akordioa hartu eta gero, jende aurrean erakutsi behar da akordioa, eta gure Lurraldeko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren Iragaraki Taula Nagusian argitaratu 15 eguneko epean; eta epealdi horretan aztertu ahal izango dute interesdunek eta aurrekontuen aurka egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Jende aurrean erakusteko aldiaren erreklamaziorik jaso ezker, hil bateko epean erabaki beharko ditu Udalak.

Horixe da esateko daukadana, Arrasaten 2017ko azaroaren 29an.

KONTU-HARTZAILEA

**2018ko AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO**  
**HELBURUA - 2017/11/7 AGINDUA - ZERO DIFIZITA**

KONTSOLIDATUTAKO GASTUEN I - VII KAPITULUEN BATURA	35.143.301,46 (*)
KONTSOLIDATUTAKO SARREREN I - VII KAPITULUEN BATURA	35.201.867,00 (*)
<b>SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA ( 0, defizita ez edukitzeko)</b>	<b>58.565,54</b>

(\*) kalkuluak erraztearren, ez da KSE eraginetarako doikuntza esanguratzurik egiten

**2018rako ZOR MUGA HELBURUAREN BETETZE MAILA - 2017/11/07 JARRAIBIDEA - 2018ko ABEND. ZORRA ≤ 2018ko SARRERA ARRUNTEN % 75 (\*)**

**2018KO URTE BUKAERARAKO BALIOETSITAKO ZORRA**

2018/1/1AN SINATUTAKO MAILEGUETATIK 2018/12/31AN AMORTIZATZEKO GELDITZEN DEN KOPURUA	1.009.606,64
2018KO MAILEGU BERRIA (nahiz eta aurrekontuetan aurreikusi, ulertzen da ez dela beharrezkoa izando)	0,00
<b>2018/12/31an AMORTIZATZEKE GUZTIRA</b>	<b>1.009.606,64</b>
<b>2018KO KONTSOLIDATUKO SARRERA ARRUNTAK (2018ko aurrekontuaren datuen arabera)</b>	<b>34.665.867,00</b>
<b>% MAILEGUEN ZORRA / KONTSOLIDATUTAKO SARRERA ARRUNTAK</b>	<b>2,91</b>

(\*) 2018an mailegu berria eskatzen ez den bitartean eta betetzen badira aurrekontuetako aurreikuspenak, E.J. aurrerakinen inportea barne

## 2018RAKO GASTU ERREGELAREN ARAUARI BURUZKO BETETZE MAILA

### A - 2017 URTEA

1 .Kontsolidatutako enplegu finantzarioak (2017ko aurrek. Gastuen I -VII kapituluak)	34.381.564,27
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	-20.129,52
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 1.taula)	-3.392.899,98
- Udala-gastu arrunta	1.308.400,00
- Udala - Kapital gastua	146.200,00
- Iturbide	1.938.299,98
4. Exekutatu gabeko gastuen doiketa(*)	
<b>5. 2017rako GASTU KONPUTAGARRIA</b>	<b>30.968.534,77</b>

### B - 2018 URTEA

1 .Kontsolidatutako enplegu finantzarioak (Gastuen I -VII kapituluak)	35.143.301,46
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	-15.842,06
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 3.taula)	-3.490.174,98
<b>2018RAKO GASTU KONPUTAGARRIA</b>	<b>31.637.284,42</b>

**C -ONARTUTAKO GEHIKUNTZA %2,4 (2017/11/7ko Gipuzkoako araudia)** **743.244,83**

**D- ARAUDI ALDAKETAN ONARRITUTAKO SARREREN GEHIKUNTZAK (\*\*)** **200.000,00**

(\*\*) - ur fakturazioak, kiroldegiko tasak, ibilgailuen gaineko tasak - %1,5eko igoera

### E - 2018RAKO GASTU ERREGELA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA

E.1.- 2017 DOITUTAKO GASTU KONPUTAGARRIA	30.968.534,77
E.2.- (+) %2,4 BAIMENDUTAKO IGOERA	743.244,83
E.3.- (+) ARAUDI ALDAKETETAN ONARRITUTAKO SARRERA GEHIAGOEN BATURA (**)	200.000,00
<b>E.4.- 2018RAKO GASTUAREN MUGA ARAUDIA BETETZEKO (1+2+3)</b>	<b>31.911.779,60</b>
<b>E.5.-2018RAKO AURREK.ARABERAKO GASTU KONPUTAGARRIA</b>	<b>31.637.284,42</b>
<b>E.6.-2018AN GASTU ERREGELA BETETZEKO ALDEA (E.5 - E.4)</b>	<b>274.495,18</b>

(\*) exekutatu gabeko doiketa ez da egiten kalkuluak erraztearren

(\*\*) %1,5eko igoeraren eragina, I. eta III.Kap.borobilduta

## 1.TAULA - 2017AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUA

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK	1.308.400,00
- Diputazioa - partehartzea	5.000,00
- E.J. - Kultur Ekintzak	5.000,00
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	18.000,00
- E.J.- Kulturaterako liburuak	11.000,00
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	3.000,00
- E.J. - Ongizateko pertsonalerako laguntzak	25.000,00
- Diputaz. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7.500,00
gizarte maparko E.J.-ko laguntza	150.000,00
- E.J. - Harrarea Zerbitzurako laguntzak	7.500,00
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntzak	28.000,00
- Diputazioa - etxez etxeke zerb.	180.000,00
- E.J. - GLL	241.000,00
- INE - Zentsuaren eguneraketa	300,00
- HAEE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	10.500,00
- Diputazioa - Mendi garbiketa	500,00
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	15.600,00
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8.000,00
- E.J. - Bake epaitegia	5.000,00
- E.J. - EBPNrako laguntza	32.000,00
- HABE - Euskaltegia	385.000,00
- Diputazioa - Euskera	21.000,00
- Diputación - Gazteria	15.000,00
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	5.000,00
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	120.000,00
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	9.500,00
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK	
- VII.Kap.	146.200,00
3- ITURBIDE	
- Ustiapenerako laguntzak - hitzartutako tarifak eta ezohiko ekarpena	1.938.299,98
4- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO 2017ko GASTUAK GUZTIRA	<b>3.392.899,98</b>

## 1.TAULA - 2018AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUA

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK	1.228.000,00
- Diputazioa - partehartzea	5.000,00
- E.J. - Kultur Ekintzak	5.000,00
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	18.000,00
- E.J.- Kulturaterako liburuak	11.000,00
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	3.000,00
- E.J. - Ongizateko pertsonalerako laguntz	25.000,00
gizarte maparko E.J.-ko laguntza	115.000,00
- E.J. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7.500,00
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntz	35.000,00
- Diputazioa - etxez etxeko zerb.	130.000,00
- E.J. - GLL	240.000,00
- INE - Zentsuaren eguneraketa	300,00
- HAAE - pertsonal formakuntzarako lagur	10.000,00
- Diputazioa - Mendi garbiketa	500,00
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	12.000,00
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8.000,00
- E.J. - Bake epaitegia	4.700,00
- E.J. - EBPNrako laguntza	32.000,00
- HABA - Euskaltegia	390.000,00
- Diputazioa - Euskera	21.000,00
- Diputación - Gazteria	15.000,00
- Diputazioa - Emakume arloko jarduereta	5.000,00
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	125.000,00
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	10.000,00
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK	
- VII.Kap.	285.000,00
3- ITURBIDE	
- Ustiapenerako laguntzak - hitzartutako tarifak eta ezohil	1.977.174,98
4- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO 2017ko GASTUAK GUZTIRA	<hr/> <b>3.490.174,98</b>